

## ¡MANTEROLA!



Askok uste du EUSKAL-ERRIA-ren  
 Zuzendaria naizalá,  
 Baña nik dakit ¡lagun maitea!  
 Zerutikan zu zerala.  
 ¿Entzungo ote det, egunen batez,  
 EUSKAL-ERRIA ill dala?  
 Ez dakit; baña, bizi dan arte,  
 Zerua onra dezala.

ANTONIO ARZÁC.

---

## MANTEROLA-RI.

Denbora joanagatik, ¡o Manterola!  
 Ez da aztutzen ainbat maite zenduen  
     Euskal-Erriyan,  
     Zure biziyan  
 Beragatikan egin zenduen lana,  
 Gizalditan aurrera biziko dana.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

